

2/2026 Irizpena, urtarrilaren 19koa: Ofiziozko berrikuspena, erabat deuseza den egintza batena eta ondare-erantzukizunarena, ofiziozko berrikuspenaren 2025/1 espedienteari buruzkoa, Iruñeko Udalak eskatuta.

Eskatzailea: Iruñeko Udala.

Txostengilea: Hugo López López.

Interesa: Gobernu Batzarraren erabakien deuseztasuna; kalte-galeren ordainaren bidezkontasuna eta ezarpena.

Erreklamaziogileak eskatu du kontratazio-egintza bat ofizioz berrikusteko, erabat deuseza izan daitekeelako. Kontratazio hori 2017ko urtarrileko deialdi baten ondorio izan zen; Iruñeko Udalak deia egin zuen, lanpostu bat betetzeko hautagaien bi zerrenda hautaprobei bidez eratzeko.

Erreklamaziogileak bere merezimenduen balorazioa aurkaratu zuen, ez baitzitzaion kontuan hartu enpresa batean zerbitzuak emateagatik lortutako esperientzia. Zenbait errekurso administratibo eta judizialen ondoren, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak arrazoiak eman zion (196/2019 epaia) eta merezimenduak berriz baloratzeko agindu zuen. Epaia betez, 2019an erreklamaziogileak izangaien zerrendako bigarren postua lortu zuen, baina kontratazioak 2017an bertan egin ziren, deuseztasun-deklarazioa egin nahi zaion hura barne. 2017an izangai bat kontratatu zuten EGA titulua zuelako, eta baldintza hori 2017ko apirilean ezarri zen, tokiko gobernu-batzarraren erabaki baten bidez. Baldintza hori ez zegoen indarreko plantilla organikoan, bakarrik lanpostuen zerrendan.

Kontseiluak aztertutako gai garrantzitsuenak ofiziozko berrikuspenaren bidezkontasunari eta kalte-galeren ordainaren bidezkontasunari buruzkoak dira.

Kontseiluaren ustez, nahiz eta ofizioz berrikusi beharreko administrazio-egintza kontratazio-egintza izan, benetan berrikustea eskatzen duena da Gobernu Batzarrak euskararen betekizuna ezartzeko hartutako erabakiaren balizko deuseztasuna, haren ondorioak kontratazio-egintzara hedatzen baitira.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak ezartzen du lanpostuen ezaugarriek, hizkuntza-eskakizunak barne, Udalbatzak

onetsitako eta NAO n argitaratutako plantilla organikoan agertu behar dutela. Tokiko gobernu-batzarrak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera, lanpostuen zerrenda onesten ahal du, baina ez du eskumenik plantilla organikoa aldatzeko. TSJNren jurisprudentziak (134/2023 epaia, maiatzaren 16koa) erabat deuseztat jotzen ditu Batzarraren erabaki horiek, lege ezarritako prozedura alde batera uzten dutelako erabat (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea).

Euskararen betekizuna 2018an behar bezala ezarri bazen ere osoko bilkuraren erabaki baten bidez, Kontseiluak ebatzi du 2018ko ondorengo aldaketak ezin dituela baliozkotu aurretiazko egintza deusezak, ezta atzeraeraginezko ondorioz izan ere.

Horregatik guztiagatik, erabat deusezak dira izangaia euskararen baldintza betetzeagatik kontratatzea ahalbidetu zuen erabakia eta kontratua bera.

Kalte-galeren ordainari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak ahalbidetzen du kalte-ordainak aitortzea egintza baten deusezatasuna deklaratzeko, baldin eta ondare-erantzukizuneko baldintzak betetzen badira, hau da, kaltea benetakoa, diru aldetik zenbakarria eta indibidualizatua bada eta interesdunak lege kalte hori jasan beharrik ez badu.

Hasieran, erreklamazioak 460.000 € baino gehiagoko kalte-ordaina ezarri du jasandako kalteengatik; gero, zenbatekoa aldatu, eta 360.371,87 €-ra murriztu du. Erreklamazio horretan, jaso gabeko soldatak, diruaren eguneratzea eta kalte moralaren 50.000 € sartzen dira. Soldatak 2017tik 2024ra bitartean kalkulatu dira, lanpostuak behar ez bezala beteta egoten jarraitu zuela iritzita. Izan ere, uste du lanpostuak behar ez bezala beteta egoten jarraitzen duela, eta adierazten du kalte-ordainaren irismena gaur egunera arte luzatu beharko litzatekeela. Kalte moralaren kalkulua aukera profesionalen, kotizazioen, lan-baldintza hobeen eta enplegu publikoaren onuren galeran oinarritzen da. Egintzaren deusezatasunaren aurreko gastu judizialak ere erreklamatu ditu.

Udalak ukatu egin du egintza deuseztatzeagatik kalte-ordain automatikoa, eta baztertu egin du kaltearen antijuridikotasuna; izan ere, arrazoizko mugen barnean jokatu zuela uste du, organo administratibo eta judizialek ondoren berretsi zuten bezala. Subsidiarioki, zenbatekoak zalantzan jarri ditu eta beste lan batzuetatik lortutako diru-sarrerak kentzea proposatu du.

Nafarroako Kontseiluak arrazoizkotzat jotzen du administrazio-jarduketa TSJNren 2019ko irailaren 12ko epaira arte (196/2019 epaia); epai horren arabera, Udala behartuta dago erreklamaziogilearen merezimenduak behar bezala barematzera. Baina epai horretatik aurrera betearazpena legez kanpokoia izan zen, Udalak ez baitzion lanposturik eskaini erreklamaziogileari eta, horrela, kalte-ordaina jasotzeko moduko kaltea eragin ziolako. Kontseiluak, beraz, 2019ko irailaren 12tik 2022ko apirilaren 18ra ezarri du kalte-ordaina jasotzeko aldia, data horretan uko egin baitzion erreklamaziogileak Udalak lanpostua betetzeko egin zion deiari. Era berean, uste du egokia dela aldi horretako soldata osoen kalte-ordaina ematea, jasotako beste diru-sarrerara batzuk kendu gabe; izan ere, jurisprudentziaren arabera, ez zaie bidegabeko aberastearen kontzeptua aplikatzen Administrazioaren ondare-erantzukizunagatiko kalte-ordainei.

Gainera, 5.000 euroko kalte-ordain gehigarria aitortzen da aukera galtzeagatik, gastu judizialak alde batera utzita.